

# Don't worry Indiako esklaboetz, be happy gure merkealdietan

Low cost egiteko modurik onena da etiketak zer ezkututzen duen jakiten ez saiatzea. Ekoizleek nahiz saltzaileek produkzio kosteak jaisten jarraitu dezakete. Arropa berri merke beztitu erosleari ispiluaren aurrean irudituko ez daukala erantzukizun handirik munduaren bilakaeran. Aldiz, Zarako etiketan ondo miatuz gero...

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ZERUA IRABAZITA DAUKA AMANCIO Ortegak. Gizona obra karitatezkoak egiteko jaioa izaki, Espainiako Caritasi urteko aurrekontu osoaren %8 oparitu dio, kasik enplegu programatarako behar duena adina. Ortegak bere eran interpretatzen du kristauen fundatzaile Jesus Nazaretekoak esana: “Zure esku ezkerak ez dezala jakin zer egiten duen eskuinak”. Posible baita esku ezkerre trebezia erabilita 20 milioiko limosnaz —40.000 milioi euroko fortunaren jabe izanik— Josafateko zelaiaren atakako zaindaria sobornatzearekin batera, eskuinaz baliatzea milaka morroi eta neskameri zintzurra estutzeko.

Inditex esatea, Amancio Ortegak sortutako inperioa alegia, da izendatzea Zara, Zara Home, Massimo Dutti, Pull & Bear, Bershka, Oysho, Kiddy's Class, Uterqüe, Stradivarius... Inditexek mugiarazi ditu 12.527 milioi euroko sarrerak 2010ean, 1.832 milioiko irabaziak, 5.527 komertzio mundu osoan, 103.201 langile. Jantzietan munduko liderra.

Tendentzia markatzen du Inditexek. Gazte askoren kontsumo ereduak laburbiltzerakoan “Zara belaunaldia” entzuten da. Bere negozio eredu irakasten zaie munduan enpresaburu izan nahi duten gazte guztiei. Horregatik, Inditexek

ko presidente Pablo Islak deitzen dituelarik kazetariak urteko emaitzak aurkezteko, zein zoro ausartuko da munduko gizonik boteretsuenetako bati galdera deserosorik egitera? Ez bada erreportari gazte atzerritar bat...

“Telebista frantsesetik nator eta inporta ez bazaizu galdera batzuk dauzkat zuri egiteko. Inditex munduko liderra da jantzigintzan eta famatua ingurumenaren defentsan, soldata duinen alde eta haurren lanaren kontra hartu dituen konpromisoengatik. Berretsi diezagukezu ez dela haurrik ari lanean Inditextentzako?”. Pablo Islak: “Nik esan dezaket gure kodigo etikoak arbuatzen duela haurren lana. Eta horrelakorik hautematen diogun momentutik hornitzailearen bati, bermatzen dizut zorrotzasunik handienez jokatzeko dugula”.

Kazetaria ez du asebate, nonbait. Berrito galdezka ari denean harri duraz dauzka begira gainerako kolegak. “Guri iritsi zaigu agiri bat, seguruenik zuk ere badaukazuna, zeinetan azaltzen baita 14 urtetik 16 arteko haurrak ari direla lanean zuentzako. Jakin nahi genuke zergatik ari diren haurrok beharrean Inditextentzako, ez zaintzeagatik, haurrak merkeagoak direlako...”. Pablo Islak: “Hasteko, zure galdera ikaragarri iraingarri aurkitzen

Indolinkspanish guneko irudian, Delhin berrikitan Zarak irekitako denda; itxuragatik berdin izan zitekeen Donostiakoa. Txokoan ageri den afixa gertuago ikusia da, merkealdiak zazpi hizkuntzatan iragarri. Irudi horiekin kontraste gogorra egiten dute telebista frantseseko *Cash Investigation* programan ikusitakoek. 2012an bertan arropa erosle frantses gisa joan den kazetariari Inditexek Delhin dituen 2.000 azpikontratetako batek lan baldintzak azaldu dizkio: lanaldia goizeko 9etan hasi eta iluntzeko 9etan bukatzen dute, igandeetan arratsaldeko 6ak arte, astearen zazpi egunetan egiten da lan, atsedean egunik ez, ordu estregatik ordainketarik ez, gehienezko 60 orduetatik oso goiti... Tailerreko ugazabak lotsagabe aitortuko dio kazetariari langileak horrela behartzea dela azpikontrata izatearen abantaila, Inditexen jakinaren gainean dagoela.

dut...”. Hau ez da prentsaurreko normala.

Segi kazetari gazteak berrito, badauzkatela agiriak erakusten dutenak Inditexek oso ondo dakiela guztiaren berri, 2009an Delhin egindako auditoria batek garbi azaltzen zuela gutxieneko soldadak ez direla errespetatzen eta haurrak erabiltzen direla lanean, eta hala ere horrela dagiten hornitzaileek konpainiarentzako zerbitzuan darraite. “Beraz, guk zera jakin nahi dugu: kosteak jaiste denean kontua, zein mugataraino iritsi daiteke?”

## Fashionaren azpildurak

Ikusi behar da, Interneten dago gaztelaniazko azpitoluz, frantsezko bigarren kate publikoak joan den maiatzean *Cash Investigation* programan eskainitako *Toxic Fringes* (Parpail pozoitsuak) dokumentala. Prentsaurrekoa osorik hor agertzen da.

*Cash Investigation*eko ekipoari norbaitek informazio konfidentziala eskuratu zion duela hilabete batzuk. Indian Inditextentzako produktuak ekoizten dituzten konpainietako lan baldintzen auditoria bat da, konpainiak berak egina: *The Indian Inditex's Supply Chain*, Inditexek Indian daukan hornitzaile katea. Agiri horretan azaleratzen da Zara eta beste arropa merkeko denden arrakasta-



duenez, mundu osoko hornitzaileak baloratzeraikoan Inditexek daukan baremoan, konpainia batek ez baditu betetzen soldata minimoak 76 puntuko zigorra jasotzen du, haurrak erabiltzen baldin baditu berdin, 76 puntu, baina hornitzailea azpikontrata klandestinoekin ari bada zigorra 2 puntukoa da, hori baizik ez. Bideoan agertzen diren umeen negreroak 2 puntuko zigorra baizik ez du jasoko.

Madrilen Pablo Islak promes egin zion TF2ko ekipoari esplikazioak Parisen emango zizkiola. Dokumentalean bilduta dago, gogoangarria eszena. Espainiatik Inditexek Felix Poza Peña bidali du, gizarte erantzukizunaren zuzendaria. Ez bakarrik. Berekin etorri dira Zara-Franceko zuzendaria, krisi komunikazioko bi aditu, bizkartzainak... kazetarien lana Inditexentzako grabatuko duen bigarren ekipoa!

*Pressinga* prentsari. Elise Lucet, frantseseko teleberrietako izarretako bat, ez da hain erraz toreatzeko kazetaria. Poza Peña azaltzen Inditexek 0 tolerantzia politika daramala, Lucet erakusten ezin defendituzkoa dela Delhin bertan 24 hornitzaile eta 2.000 azpikontrataren kontrola daukatela esatea...

Aste gutxiren bueltan, TF2ko ekipoak Inditexen gonbidapena jaso zuen Delhiko bere hornitzaileak zintzotu direla erakusteko. Ez da egia. 2.000 azpikontratetan eskalotzan dira. Inditexek ez zuen esperoko kazetariak Indiaraino joaterik egia filmatzera, gutxiago ondoren TF2 publikoak erakustea. ■



ren gako ezkutuetako bat, hornitzaileen ezkutuko kostea.

Agiriak ondorio beldurgarriak erakusten ditu: hornitzaileen %76,4ek ez ditu gutxieneko jorنالak errespetatzen, baina okerragoa dena, fabrikatzaileen laurdenak umeak dauzka tailerretan.

Inditexek berak A-tik D-ra sailkatu ditu Delhiko hornitzaileak, A baldintza duinak betetzen dituztenak, D lanean haurrak darabiltzatenak. 2009an Delhiko 24 hornitzailetatik denak zeuden D sailean. Baina, gainera, 24 konpainia handi horiek mendean dauzkate 2.000 azpikontrata gehiago, Delhi osoan armiarma sarea legez hedatuak.

Telebista frantseseko ekipoari USB batean heldu materialen artean

bideoak ere badira, non Inditexek kontratatutako inspektorek bisitatzten dituzten tailer horietako batzuk. Arriskuz betetako instalazioak, higie-ne arazo larriak, lanera-ko zoko txiki itogarriak...

Baina are gogorragoa: irudietan agertzen dira tailerrean josteko makinak oinetan lotan dauden gatzetxoak. Non bizi ote dira esklabok? Zenbat urte dituzte, 16 baino gutxiago, 14 baino gutxiago akaso? Inspekzioak ezustean harrapatu ditu, igarri zaie. Kazetariaren hitzak: "Munduko konpainia textil handienaz ari gara, nola iritsi da horretaraino?"

Argibidea Inditexen beste barne agiri batean eskaintzen du. TF2ko ekipoak dokumentalean erakutsi



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

